# Bestelako Xedapenak

**HERRIZAINGO SAILA**

**6719**

620/2009 DEKRETUA, abenduaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudia hirugarrenez aldatzen duena.

Indarrean den Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuak onartu zuen eta otsailaren 22ko 32/2005 Dekretuak (2005eko martxoaren 7ko EHAA) eta bigarrenez aldatzen duen apirilaren 1eko 55/2008 Dekretuak (2008ko apirilaren 15eko EHAA) zati batean aldatu zuten.

Oraingo arauak, arautegietan oso oinarrituta baitaude, sektoreko egoera sozio-ekonomikora egokitu beharrak eragin ditu aldaketa horiek. Horretarako, sektorean gertatu diren aldaketak bingo-jokoaren lokalen enpresaburuek adierazitako kezkak hartu dira kontuan.

Egindako erreformak eta erreforma-proposamenen iraunkortasuna bingo-jokoaren modalitateei aplikatu beharreko kentze-ehunekoen egokitzapenaz ari dira gehienbat. Araudiak ez du denbora-egonkortasunik izan puntu horretan, baina ez bakarrik gaia aurreikusi ez delako edo horretan asmatu ez delako, baizik eta, batez ere, arautudako sektoreak izan dituen aldaketengatik.

Herrizaingoko sailburuari habilitazioa eman zaio zehaztu dezan, bingo-araudiaren garapenean, zenbateko kentze-ehuneko aplikatu behar zaien bingo-jokoaren modalitateei. Horrekin, batera lortu nahi dira araudia iraunkorra izatea eta gai berezi hau joko-merkatuaren gorabeherei eta beharrizanei egokitzea, hala egin baitute beste autonomia-erkidego batzuetan.

Hori dela bide, Herrizaingoko sailburuak proposatuta, Jokoaren Euskal Kontseiluak aldeko txostena eman duenez, Eusko Jaurlaritzako Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorriz, eta Gobernu Batzordearen 2009ko abenduaren 15eko batzarrean eztabaidatu eta onetsi ondoren, honakoa

XEDATU DUT:

***Lehenengo artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiaren 29. artikulua aldatzea. Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona idazketa berria:

«29. artikulua.– Sarien ordainketa.

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE INTERIOR**

**6719**

DECRETO 620/2009, de 15 de diciembre, de tercera modificación del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El vigente Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi fue aprobado por Decreto 31/2004, de 10 de febrero, y modificado parcialmente por el Decreto 32/2005, de 22 de febrero (BOPV de fecha 7 de marzo de 2005) y el Decreto 55/2008, de 1 de abril, de segunda modificación (BOPV de fecha 15 de abril de 2008).

Dichas modificaciones derivan de la necesidad de adaptar la normativa, muy reglamentista, a la realidad socio-económica del sector atendiendo a los cambios que ha podido experimentar y a las inquietudes manifestadas por los empresarios de los locales del juego del bingo.

Singularmente, las reformas acaecidas y la persistencia de propuestas de reforma se centran en la adaptación de los porcentajes de detracción aplicables a las modalidades del juego del bingo. El hecho de que el reglamento no haya tenido en este punto estabilidad en el tiempo no se debe tanto a falta de previsión o de acierto, como a los cambios a los que está sujeto el sector regulado.

Con la habilitación al Consejero de Interior para que determine en desarrollo del reglamento del bingo los porcentajes de detracción aplicables a las modalidades del juego del bingo, se pretende lograr combinar la perdurabilidad de la norma reglamentaria con la adaptabilidad de esta singular cuestión a los vaivenes y necesidades del mercado del juego, tal y como acontece en otras Comunidades Autónomas.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, habiendo emitido informe el Consejo Vasco de Juego, de acuerdo con la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 15 de diciembre de 2009,

DISPONGO:

***Artículo primero.***– Se modifica el artículo 29 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 29.– Pago de premios.

1.– Sariak esku-dirutan ordainduko zaizkie jokalariei edo, ezin bada, txeke adostuaren bidez, jokalaria aldez aurretik ados agertzen bada.

2.– Sariak partida bakoitzaren bukaeran ordainduko dira, saridun txartelak jaso eta egiaztatu ondoren. Txartelok osorik aurkeztu behar dira, zalantza sor dezakeen manipulaziorik gabe. Txartel horiek Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak eskatu ahalko dituzte, hilabete bateko epean.

3.– Saria ordaintzen ez bada, jokalariak enpresak eginiko fidantza atxikitzeko eskatu ahalko dio Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, idatziz, saria kobratzeko.

4.– Partida bakoitzean kartoiak salduz biltzen den diruaren zati bat sariak ordaintzeko izango da. Diru hori, Herrizaingoko sailburuaren agindu batean ezarritako ehunekoa aplikatuz kalkulatuko da, eta berariazko arauetan bildutako joko-modalitateen arabera banatuko da».

***Bigarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiaren 31. artikulua aldatzea. Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona idazketa berria:

«31. artikulua.– Sarien banaketa.

Bingo tradizionaleko partida bakoitzean banatuko den saria hauxe izango da: partidan saldu diren txartelen ageriko balioaren ehunekoak, Herrizaingoko sailburuak araudi hau garatzeko emango duen agindu bidez zehazten direnak».

***Hirugarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiaren 33. artikulua aldatzea. Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona idazketa berria:

«33. artikulua.– Sarien banaketa.

1.– Bingo pilatuaren saria, Herrizaingoko sailburuak araudi hau garatzeko emango duen agindu bidez zehazten den txartelaren ageriko balioaren ehunekoa izango da. Zenbateko hori partida bakoitzean deskontatuko da bingorako ehunekotik, eta bingo pilatuaren saria lortuko den partidara arte pilatzen joango da.

2.– Bingo pilatuaren sarirako metatzen joan den zenbatekotik, Herrizaingoko sailburuak araudi hau garatzeko emango duen agindu bidez ezartzen den ehunekoa deskontatuko da, saria ematen denean. Zenbateko hori, erreserba-bingo moduan, bingo pilatuaren hasierako kopurua izango da eta hurrengo partidan lortutakoari gehituko zaio. Herrizaingoko sailburuaren agindu bidez ezarriko da irabazle gertatzen den erabiltzaileari edo erabiltzaileei eman beharreko ehunekoa».

1.– Los premios serán abonados a los usuarios en dinero efectivo o, en su caso, mediante cheque conformado, previa conformidad del usuario.

2.– Los premios se pagarán al terminar cada partida, previa comprobación y contra la entrega de las correspondientes tarjetas, que habrán de presentarse íntegras y sin manipulaciones que puedan inducir a error, debiendo permanecer a disposición de la Dirección de Juego y Espectáculos durante el plazo de un mes.

3.– El impago del premio obtenido facultará al usuario a requerir por escrito de la Dirección de Juego y Espectáculos la ejecución de la fianza que tuviera depositada la empresa, para el cobro del mismo.

4.– La parte de la recaudación por venta de cartones en cada partida destinada al pago de premios consistirá en el porcentaje que se establezca por Orden del Consejero de Interior en desarrollo de este Reglamento, distribuyéndose en función de las distintas modalidades del juego recogidas en sus específicas normas».

***Artículo segundo.***– Se modifica el artículo 31 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, que pasa a tener la siguiente redacción:

«Artículo 31.– Distribución de premios.

La cantidad a distribuir en premios en cada partida del bingo tradicional consistirá en los porcentajes del valor facial de las tarjetas vendidas en la misma que se determinen por Orden del Consejero de Interior en desarrollo del presente Reglamento.»

***Artículo tercero.***– Se modifica el artículo 33 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, quedando redactado del siguiente modo:

«Artículo 33.– Distribución de premios.

1.– La cuantía del premio del bingo acumulado será el porcentaje del valor facial del soporte que se determine por Orden del Consejero de Interior en desarrollo del presente Reglamento, y se descontará en cada partida del porcentaje del premio destinado al bingo, acumulándose hasta la partida en que se obtenga el premio del bingo acumulado.

2.– De la cantidad acumulada destinada al premio del bingo acumulado, se descontará, en el momento de entregarse el premio, el porcentaje que se establezca por Orden del Consejero de Interior, que constituirá, como bingo reserva, la cantidad inicial del bingo acumulado, a sumar a la obtenida en la partida siguiente. La Orden del Consejero de Interior establecerá igualmente el porcentaje que se entregará al usuario o usuarios ganadores».

***Laugarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiaren 37. artikulua aldatzea. Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona idazketa berria:

«37. artikulua.– Sarien banaketa.

1.– Partida bakoitzean banatuko den saria hauxe izango da: partidan saldu diren txartelen ageriko balioaren ehunekoak, Herrizaingoko sailburuak araudi hau garatzeko emango duen agindu bidez zehazten direnak.

2.– Sari "bereziaren" zenbatekoa hauxe izango da: joko-modalitate hau duen lokal bakoitzean jokatu diren txartelen ehunekoa pilatzean lortutakoa. Herrizaingoko sailburuaren agindu bidez ezarriko da.

Interkonektatutako bingo pilatuari dagokion kopurua, bingo-joko tradizionalean aritzeko sarien ehunekotik kenduko da partida bakoitzean; gehienez ere 25.000 euro pilatuko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aurreikusitako gehienezko kopurua lortuz gero, hor aipatzen den kentze-ehunekoa ohiko bingoaren sarirako erabiliko da.

4.– Ateratzeko ordenaren arabera, hogeita hamaseigarren bola da interkonektatutako bingo pilatua lortzeko gehieneko bola. Gehieneko kopurura heltzen denean, saria lortu arte egun bakoitzeko bola bat gehiago izango da».

***Bosgarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiaren 41. artikulua aldatzea. Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona idazketa berria:

«41. artikulua.– Sari "berezia".

1.– Sari "berezia" interkonektatutako bingo pilatuarekin batera jokatzen da. Joko horretan, bingo tradizionalekoaz gain, sari gehigarria lortuko da modalitate hori duten bingoan jokatzeko lokaletan, ateratzeko ordenaren arabera izan den bola-zenbakia kontuan hartuta eta artikulu honetako 5. zenbakian xedatutakoarekin bat etorriz.

2.– Sari "bereziaren" zenbatekoa hauxe izango da: joko-modalitate hau duen lokal bakoitzean jokatu diren txartelen ageriko balio osoaren ehunekoa pilatzean lortutakoa. Herrizaingoko sailburuaren agindu bidez ezarriko da.

3.– Jokalariek sari "berezia" irabazteko aukera izango dute, artikulu honetan ezartzen den eskalaren arabera, saria aipatu zenbatekora heltzen denean. Behin sari "bereziaren" kopurura iritsita, aipatutako ehunekoa kentzen jarraituko da; diru hori erreserba

***Artículo cuarto.***– Se modifica el artículo 37 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, quedando redactado del siguiente modo:

«Artículo 37.– Distribución de premios.

1.– La cantidad a distribuir en premios en cada partida consistirá en los porcentajes del valor facial de las tarjetas vendidas en la misma que se establezcan por Orden del Consejero de Interior en desarrollo del presente Reglamento.

2.– La cuantía del premio del bingo acumulado interconectado será la que resulte de acumular el porcentaje del total de las tarjetas jugadas en los locales del juego del bingo adheridos a esta modalidad de juego que se establezca por Orden del Consejero de Interior.

La cantidad correspondiente al bingo acumulado interconectado se detraerá en cada partida del porcentaje de premios destinado al juego del bingo tradicional, acumulándose hasta el importe máximo de 25.000 euros.

3.– Una vez alcanzada la cantidad máxima prevista en el párrafo anterior, el porcentaje de detracción en el mismo referido se destinará al premio del bingo ordinario.

4.– Según su orden de extracción, la bola máxima que posibilita la obtención del bingo acumulado interconectado es la trigésimo sexta. Una vez alcanzado el importe máximo se incrementará una bola por cada día transcurrido hasta la consecución del premio».

***Artículo quinto.***– Se modifica el artículo 41 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, quedando redactado del siguiente modo:

«Artículo 41.– Premio berezia.

1.– El premio berezia se juega conjuntamente con el bingo acumulado interconectado, consistiendo en la obtención de un premio adicional al del bingo tradicional en los locales para el juego del bingo en los que se practique esta modalidad, en función del número de bola según su orden de extracción, de acuerdo con lo dispuesto en el número 5 del presente artículo.

2.– La cuantía del premio berezia será la que resulte de acumular el porcentaje del importe facial total de las tarjetas jugadas en cada local de juego que practique esta modalidad de juego que se determinen por Orden del Consejero de Interior.

3.– El premio berezia estará disponible para los usuarios cuando se alcance el importe señalado, de acuerdo con la escala establecida en el presente artículo. Una vez alcanzado el importe del premio berezia se seguirá detrayendo el citado porcentaje, des-

"berezirako" gordeko da, eta erreserba hori hasierako dotaziora eramango da, aurreko sari "berezia" ordaindu ondoren.

4.– Ateratzeko ordenaren arabera, sari "berezia" lortzeko azken bola berrogeita seigarrena izango da, berau barne. Dena den, sari "bereziaren" zenbatekora heldu baina aurreko puntuan ezarritako azken bolarekin jokalari batek ere ez badu saria lortu, egingo den partida bakoitzeko bola bat gehiago aterako da, sari "berezia" eman arte.

5.– Konbinazio irabazle bat baino gehiago badago, saria irabazle guztien artean banatuko da.

6.– Sari "bereziaren" zenbatekoa zein izango den zehazteko, bingo-aretoek Foru Aldundiei urtean egindako erosketak hartuko dira kontuan, hain zuzen, puntu honetako erosketa-eskala aplikatzen den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31n egindakoak.

Sari "bereziaren" gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak, urtean egindako erosketen arabera:

tinándose a reserva berezia para pasar esta reserva a la dotación inicial, una vez que sea pagado el premio berezia anterior.

4.– Se establece como límite máximo de bola que posibilita la obtención del premio berezia la cuadragésimo sexta en su orden de extracción, incluida esta. No obstante lo anterior, si una vez alcanzado el importe del premio berezia ningún usuario hubiera obtenido el premio con el límite máximo establecido en el punto anterior, se procederá a incrementar el límite de extracción en una bola por cada una de las partidas sucesivas hasta conceder el premio berezia.

5.– En el supuesto de que haya varias combinaciones ganadoras, se repartirá el premio entre todos los ganadores.

6.– La determinación de la cuantía del premio berezia se realizará en función de las compras anuales de las salas de bingo a las respectivas Diputaciones Forales, tomando como referencia las realizadas a 31 de diciembre del año anterior al ejercicio en el que aplique la escala de compras a que se refiere este apartado.

Premio mínimo y máximo del premio berezia en función de las compras anuales:

| URTEKO EROSKETAK | SARI "BEREZIAK" |
|---|---|
| 4.000.000 eurora bitartekoak | 100 euro - 1.000 euro |
| 4.000.001 eurotik 8.000.000 eurora bitartekoak | 200 euro - 1.000 euro |
| 8.000.001 eurotik 16.000.000 eurora bitartekoak | 350 euro - 1.000 euro |
| 16.000.000 eurotik gorakoak | 500 euro - 1.000 euro |

| *COMPRAS ANUALES* | *PREMIOS BEREZIA* |
|---|---|
| *Hasta 4.000.000 de euros* | *100 euros - 1.000 euros* |
| *De 4.000.001 a 8.000.000 de euros* | *200 euros - 1.000 euros* |
| *De 8.000.001 a 16.000.000 de euros* | *350 euros - 1.000 euros* |
| *Más de 16.000.000 de euros* | *500 euros - 1.000 euros* |

Sarien eskala 50 euroko zatikitan handitu ahal izango da, salmenta-tarte bakoitzaren arabera.

7.– Bingo-areto bakoitzak, saio berean, dituen sari "berezietako" edozein eskaini ahal izango die jokalariei, baldin eta une bakoitzean ezarritako saria eman bada.

La escala de premios podrá aumentar en fracciones de 50 euros hasta un máximo de 1.000 euros en función de cada tramo de venta.

7.– Cada sala de bingo, dentro de una misma sesión, podrá ofertar a los usuarios cualquiera de sus premios berezia posibles, siempre que el premio establecido en cada momento haya sido concedido.

8.– Mahaiko arduradunak, egun bakoitzeko saioa hastean, sari "bereziaren" zenbatekoa eta hori lortzeko bola ateratzeko ordena zein diren jakinaraziko du. Halaber, sariaren zenbatekoa aldatuz gero, horri dagokion partida hasi baino lehen jakinaraziko du.

Era berean, sari "berezirik" dagoen eta bola ateratzeko ordena zein izango den esango du dagokion partida baino lehen eta saria eman arte».

***Seigarren artikulua.***– Euskal Autonomia Erkidegoko bingo-jokoaren Araudiaren 42. artikulua aldatzea. Araudia otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren bidez onetsi zen. Hona idazketa berria:

«42. artikulua.– Joko-modalitaterako baimena.

1.– Joko-modalitate hau eduki nahi duten enpresek idazki bat bidali beharko dute Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzara eta, horrekin batera, aurreko ekitaldiko salmenten bolumenari buruzko dagokion Foru Aldundiaren ziurtagiria ere bidaliko dute. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzan aurkeztu den dokumentazioa aztertu ondoren, Araudi honetan ezartzen diren betekizunekin bat etorriz, baimena emango da (hala badagokio). Eskabidea, gainera, enpresarien elkarteak ere aurkeztu ahal izango du berak ordezkatzen dituen bingo-areto guztien izenean.

2.– Baimenak, ematen den urte naturaleko indarraldia izango du, eta besterik gabe berritu ahal izango da.

3.– Baimendutako enpresak urtero-urtero egokitu beharko dira aurreko ekitaldiko salmenta-kopuruaren arabera dagokien eskalera, araudi honen 41.6 artikuluan ezarritakoari jarraiki. Horretarako, hala jakinarazi beharko diote Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzari, ondorioak izatea nahi den ekitaldiko urtarrilaren 15a baino lehen. Halaber, aurreko urteko abenduaren 31n izandako salmenten bolumenaren ziurtagiria ere bidaliko dute. Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak horren gainean berariazko ebazpenik eman ez badu egutegiko hamar eguneko epean, eskala berrian sartzeko baimena ematen dela ulertuko da.

4.– Nolanahi ere, baimendutako enpresek sari bereziaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak aldatzeko eskatu dezakete, betiere araudi honetako 41.6 artikuluko eskalaren arabera, eta eskaera-egunaren aurreko hiruhilabetean izandako erosketak erreferentziatzat harturik.

Salmentak zehazteko, urte osoa hartuko da aintzat, eta kasuan kasuko hiruhilabeteari dagokion proportzioa kalkulatuko da.

Eskaerarekin batera, interesdunak dagokion foru aldundiaren egiaztagiriak aurkeztuko ditu. Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak horren gainean berariazko ebazpenik eman ez badu hamar egun naturaleko epe-

8.– El Jefe de Mesa, al comienzo de cada sesión diaria, anunciará la cuantía del premio berezia, así como el orden de extracción de bola necesario para conseguirlo. Asimismo, deberá anunciar todo cambio de cuantía del mismo, antes del comienzo de la partida afectada.

Igualmente, deberá anunciar la disponibilidad de obtención del premio berezia, así como el orden sucesivo de extracción de bola, antes de cada partida afectada y hasta la consecución del premio.»

***Artículo sexto.***– Se modifica el artículo 42 del Reglamento del juego del bingo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por el Decreto 31/2004, de 10 de febrero, quedando redactado del siguiente modo:

«Artículo 42.– Autorización de la modalidad de juego.

1.– Las empresas que deseen desarrollar esta modalidad de juego deberán solicitarlo mediante escrito a la Dirección de Juego y Espectáculos, adjuntando certificado de la Diputación Foral respectiva del volumen de ventas correspondiente al ejercicio anterior. A la vista de la documentación presentada la Dirección de Juego y Espectáculos concederá, en su caso, la autorización de acuerdo con los requisitos establecidos en este Reglamento. La solicitud, asimismo, podrá ser presentada, respecto a todas las salas de bingo, por la entidad empresarial que las represente.

2.– La autorización tendrá vigencia para el año natural en el que se conceda, sin perjuicio de su renovación automática.

3.– Las empresas autorizadas deberán adaptarse anualmente a la escala que les correspondiese en función del volumen de ventas del ejercicio anterior a tenor de lo dispuesto en el artículo 41.6 de este Reglamento. A tal fin deberán comunicarlo a la Dirección de Juego y Espectáculos antes del día 15 de enero del ejercicio en el que pretenda surtir efecto, adjuntando certificación del volumen de ventas a 31 de diciembre del año anterior. Si la Dirección de Juego y Espectáculos no realizará pronunciamiento expreso en el plazo de diez días naturales, se entenderá autorizada la inclusión en la nueva escala.

4.– No obstante, las empresas autorizadas podrán solicitar la modificación de los premios mínimos y máximos del premio berezia, de acuerdo con la escala contemplada en el artículo 41.6 del presente Reglamento, tomando como referencia las compras del trimestre anterior a la fecha de la solicitud.

La determinación de las ventas se realizará en consideración a un año completo, calculado proporcionalmente a trimestre de referencia.

El interesado junto con la solicitud, aportará acreditación documental de la Diputación Foral correspondiente. Si la Dirección de Juego y Espectáculos no realizara pronunciamiento expreso en el plazo de

an eskaera egiten den egunetik hasita, sari bereziaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak eskala berriaren arabera aldatzeko baimena ematen duela ulertuko da».

***Zazpigarren artikulua.***– Otsailaren 10eko 31/2004 Dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoa aldatzea eta honela idaztea:

«Lehena.– Herrizaingoko sailburuak izango du honako Dekretu hau garatzeko eta gauzatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko ahalmena; eta batik bat, honako hauei dagozkiena:

a) Bingo-jokoaren modalitate ezberdinetan erabili beharreko joko-txartelen ereduak eta ageriko balioa.

b) Bingo-jokoaren modalitate ezberdinetako joko-arauak.

c) Dekretu honetan ezarritako balizko konbinaziolote bakoitzaren joko-txartelen kopurua aldatzea, eta bingo modalitateetako sarien ordena aldatzea.

d) Bingo-jokoaren modalitate ezberdinetako sariak banatzeko ehunekoak».

XEDAPEN IRAGANKORRAK

***Lehenengoa***.– Herrizaingoko sailburuak araudiaren 29., 31., 33., 37. eta 41. artikuluetan adierazten diren kentze-ehunekoak zehazten ez dituen bitartean, aurreko araudian ezarritakoak aplikatuko dira.

***Bigarrena***.– Dekretu hau indarrean sartzen denetik hasita, hilabeteko apean gehienez, bingo-enpresek sari bereziaren gutxieneko eta gehieneko zenbatekoetara egokitzeko baimena eskatu beharko dute, betiere, bingo-jokoari buruzko araudiaren 41. artikuluko eskalaren arabera. Horretarako, aurreko urtean abenduaren 31 arte izandako salmenta-bolumenaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2009ko abenduaren 15ean.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua,
RODOLFO ARES TABOADA.

diez días naturales, desde la solicitud, se entenderá autorizada la modificación de los premios mínimos y máximos del premio berezia, en función de la nueva escala».

***Artículo séptimo.***– Se modifica la disposición final primera del Decreto 31/2004, de 10 de febrero, que queda redactada del siguiente modo:

«Primera.– Se faculta al Consejero de Interior para dictar las disposiciones necesarias en desarrollo y ejecución del presente Decreto, y en particular las referidas a:

a) Los modelos y valor facial de las tarjetas de juego a utilizar en las diferentes modalidades del juego del bingo.

b) Las normas de juego de las diferentes modalidades del juego del bingo.

c) La modificación del número de tarjetas de juego de cada lote de combinaciones posibles establecido en el presente Decreto, así como el orden de los premios de las modalidades de bingo.

d) Los porcentajes de distribución de premios en cada una de las modalidades del juego del bingo».

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

***Primera***.– Hasta tanto no se dicte la Orden del Consejero de Interior que establezca los porcentajes de detracción a los que se refieren los artículos 29, 31, 33, 37 y 41 del Reglamento se seguirán aplicando los previstos en la normativa anterior.

***Segunda***.– En el plazo máximo de una mes desde la entrada en vigor del presente Decreto las empresas de bingo deberán solicitar su adaptación a los premios mínimos y máximos del premio berezia atendiendo a la escala del artículo 41 del reglamento del bingo, adjuntando certificación del volumen de ventas a 31 de diciembre del año anterior.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de diciembre de 2009.

El Lehendakari,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior,
RODOLFO ARES TABOADA.